



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urtarrilaren 17a

6. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da “Ana Montoro” Fundazioarekiko lankidetzaprotokolo bat ezar dezan “Zure ilea irribarre baten truke” proiektua garatzeko. Hezkuntza Batzordeak onetsia (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da beharrezkoak diren baliabideak eman diezazkien euskarazko hedabideei. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (2. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Espainiako Gobernuak iragarritako neurrien inguruko balorazioari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (3. or.).
- Galdera, kontu-hartzaile lanpostua betetzeko deialdian sartzetik aldi baterako salbuste aldera Lizarrako Udalak egindako eskaerari buruzkoa. Xabier Lasa Gorraiz jaunak egina (3. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia eta Lizarrako Garcia Orcoyen ospitaleetako laborategiak zentralizatzeko prozesuari buruzkoa. Marisa De Simón Caballero andreak egina (4. or.).
- Galdera, jakiteko zer egiten ari den Nafarroako Gobernuak Espainiako Itzuliaren Nafarroako etapetarako finantzaketa pribatua lortze aldera. Amaya Zarranz Errea andreak egina (5. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Toki Fundazio Publikoek buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (6. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Ana Montoro” Fundazioarekiko lankidetzaprotokolo bat ezar dezan “Zure ilea irribarre baten truke” proiektua garatzeko.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2012ko urtarrilaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Ana Montoro” Fundazioarekiko lankidetzaprotokolo bat ezar dezan “Zure ilea irribarre baten truke” proiektua garatzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Ana Montoro” Fundazioarekiko lankidetzaprotokolo bat ezar dezan “Zure ilea irribarre baten truke” proiektua garatzeko

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du azter dezan ea zer aukera dagoen “Ana Montoro” fundazioarekiko lankidetzaprotokolo bat ezartzeko, hala nahi duten ikastetxeek “Zure ilea irribarre baten truke” proiektua garatze aldera.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren baliabideak eman diezazkien euskarazko hedabideei.

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren baliabideak eman diezazkien euskarazko hedabideei”.

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak, 2012ko urtarrilaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki

zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2011ko azaroaren 25eko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Espainiako Gobernuak iragarritako neurrien inguruko balorazioari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Espainiako Gobernuak iragarritako neurrien inguruko balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Errok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Ganberako Araudiak esaten duenari eutsiz, datorren urtarrilaren 17ko Osoko Bilkurarako ondoko egunerokotasuneko ahozko galdera egin nahi du, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan:

- Zein da Nafarroako Gobernuaren balorazioa Mariano Rajoyren Gobernu espainiarrak iragarritako neurriei buruz?

- Ze neurri jarriko ditu martxan Nafarroako Gobernuak Espainiako gobernuak iragarritako neurrien aurrean?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, kontu-hartzaile lanpostua betetzeko deialdian sartzetik aldi baterako salbuste aldera Lizarrako Udalak egindako eskaerari buruzkoa.

XABIER LASA GORRAIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, kontu-hartzaile lanpostua betetzeko deialdian sar-

tzetik aldi baterako salbuste aldera Lizarrako Udalak egindako eskaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Xabi Lasa Gorraizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, urtarrilaren 17ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakariorde Roberto Jiménezek ahoz erantzun dezan:

Lizarrako Udalak 2011ko azaroaren 3an eta abenduaren 1ean egindako osoko bilkuretan gehiengo osoz erabaki zuen lehendakariorde Roberto Jiménez Alli jaunari eskatzea, Toki Administrazioako kontseilari den aldetik eta arrazoi ekonomikoei jarraikiz eta aurrekontu arloko egonkortasun-printzipioa aplikatuz, "egoki diren tresnak ezar ditzan, Lizarrako Udala aldi baterako salbueste aldera udal horretako kontu-hartzaile lanpostua

betetzeko deialdian sartzetik?" Erabaki horiek ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

Kontseilari jaunak ba al du ezer egiteko asmorik Lizarrako Udalaren eskariari aldeko erantzuna emateko eta, beharrezkoa balitz, lege-aldaketa bat proposatzeko, halako moduan non Nafarroako udalek aukera izan ahalko duten aldi baterako salbueste egiteko kontu-hartzaile lanpostua deialdian sartzetik –Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak abiarazia du deialdi hori, Nafarroako zenbait udaletako kontu-hartzaile lanpostua betetzeko–, baldin eta aurrekontu arloko egonkortasun arrazoiak alegatzen badituzte eta, kasu honetan bezala, gisako profileko funtzionario batek betetzen badu lanpostua?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Xabi Lasa Gorraiz

Galdera, Tuterako Reína Sofía eta Lizarrako García Orcoyen ospitaleetako laborategiak zentralizatzeko prozesuari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Tuterako Reína Sofía eta Lizarrako García Orcoyen ospitaleetako laborategiak zentralizatzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa De Simón Caballerok gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan azaroaren 30ean, Izquierda-Ezkerra Parlamentu-taldeak, osasun arloko eledunaren

bidez, informazioa eskatu zion Nafarroako Gobernuari, Tuterako Reína Sofía eta Lizarrako García Orcoyen ospitaleetako laborategiak zentralizatzeko prozesuari dagokionez Osasun Departamentuak egin edo egiteko agindu dituen txosten tekniko eta ekonomikoei buruz.

Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak 2011ko abenduaren 27an erantzun zuen "oraindik bukatu gabe dagoela zentralizatzeko prozesu horren balorazioa egitea agindu zaion talde teknikoari agindutako lana. Dokumentazioa urtarrilean egonen da prest, eta urtarrilaren 30ean Osasun Batzordean agerraldia egiteko ohorea izanen dudanez gero eta besteak beste gai horri buruzko informazioa emanen dudanez gero, egun hori baino lehenago igorri ahalko dizut aipatu dokumentazioa." Erantzun hori ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

Osasuneko kontseilariak zer elementu darabil –datuak, inguruabarrak, txostenak, ikerketak, teoriak eta beste–, laborategien zentralizazioa aintzat hartzeko eta, hortaz, zentralizatzeko prozesu horri buruzko balorazioa egin dadin agintzeko?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, jakiteko zer egiten ari den Nafarroako Gobernua Espainiako Itzuliaren Nafarroako etapetarako finantzaketa pribatua lortze aldera.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer egiten ari den Nafarroako Gobernua Espainiako Itzuliaren Nafarroako etapetarako finantzaketa pribatua lortze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko ondo ko galdera egin du, Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barneko kontseilari eta lehen lehendakariorde Roberto Jiménez jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Gobernua zer egiten ari da Espainiako Itzuliaren Nafarroako etapetarako finantzaketa pribatua lortze aldera? Zein izan da orain arteko emaitza? Zer emaitza aurreikusten du guztira?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Toki Fundazio Publikoei buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 1ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Toki Fundazio Publikoei buruz egindako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria, Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Toki Fundazio Publikoei buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (6. or.).
- II. Toki fundazio publikoak (7. or.).
 - II.1. Toki fundazio publikoak estatuko legerian. (7. or.).
 - II.2. Toki fundazioak foru erkidegoko legerian (7. or.).
- III. Helburua eta norainokoa (8. or.).
- IV. Ondorioak (9. or.).
 1. eranskina. "Dédalo para la Sociedad de la Información" Fundazioa (14. or.).
 2. eranskina. María Forcada Fundazioa (16. or.).
 3. eranskina. Barañain Auditorioa Fundazioa (17. or.).
 4. eranskina. "Teatro Gayarre" Fundazioa (19. or.).
 5. eranskina. Nuestra Señora de Gracia (20. or.).
 6. eranskina. Milagro XXI Fundazioa (21. or.).
 7. eranskina. Remonte Euskal Jai Berri (21. or.).
 8. eranskina. Centro de Arte Contemporáneo Fundazioa (23. or.).
 9. eranskina. Buldain Fundazioa (24. or.).

I. SARRERA

Kontu Auzitegiak, 2010eko Programan, lan bat jaso zuen "Toki esparruko fundazioei buruz (2009ko ekitaldia)". Auzitegi horren Osoko Bilkurak, 2011ko otsailean, plangintzaren jarraibide teknikoak edo oroit-idazkia onetsi zituen.

Lan hau, funtsean, galdetegiaren teknikaren bitartez egin da. Galdetegia auzitegi horrek igorri zien erregistro ofizialen arabera tokikotzat jo zitezkeen fundazio guztiei.

Kontu Auzitegiaren eta Comptos Ganberaren arteko lankidetzaren esparruan, eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 18. bis artikulua aplikatuz, Comptos Ganberak bere gain hartu du Nafarroako eremuan lan hau eta "Nafarroako toki fundazio publikoei" buruzko txosten bat egiteko ardura (2009). Lan hau sartu da Comptos Ganberak 2011rako onetsi zuen fiskalizazio-programan.

Kontu Auzitegiak Comptos Ganberari 2011ko martxora arte Nafarroako toki fundazioei buruz zeukan informazio guztia (galdetegiak, ofizioak, egoera-orri finantzarioak, idazkiak...) igorri zion. Ganbera honek lortutako informazioa eta txostena bera Kontu Auzitegiari igorriko zaizkio gero, gaiari buruz egiten duen txosten orokorrean txerta dezan.

Landa-lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, 2011ko apirilean eta maiatzean. Era berean, Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informetikoaren eta administratiboaren laguntza izan dugu.

Txostena lau epigrafetan dago banatuta, sarre-hau barne. Bigarren epigrafean, toki fundazio publikoei buruzko esparru juridiko erregulatzailerari buruzko analisi bat egiten da, bai eta Nafarroan daukaten egoerari buruz ere; hirugarrenean, lanaren helburuak eta norainokoa azaltzen dira, eta, laugarrenik, ateratako ondorioak eta gomendio orokorrak.

Txostenarekin batera eranskin bat ageri da Nafarroako toki fundazio publiko bakoitzeko, haiei buruzko informazio garrantzitsuenarekin.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu toki fundazio horietako langileei.

II. TOKI FUNDAZIO PUBLIKOAK

II.1. TOKI FUNDAZIO PUBLIKOAK ESTATUKO LEGERIAN.

Kontu Auzitegiaren aipaturako jarraibide teknikoaren arabera, honako alderdiak aipatu behar ditugu fundazio horien esparru juridikoari buruz:

- Azken garai hauetan, Espainiako administrazio publikoak bere buruari tresna-ente ugari eman dizkio, interes orokorreko gisa guztietako helburuak lortu ahal izateko. Entitate berri horien artean, "sektore publikoko fundazioak" daude, zeinak honela defini baitaitezke: irabazi asmorik gabe eratutako erakundeak, sortzaileen borondatez, beren ondarea modu iraunkorrean atxikitzen diotenak interes orokorreko xedeak betetzeari.

- Fundazioei buruzko 1994ko Legeak fundazioei buruzko zuzenbidea ezarri zuen, Espainiako Konstituzioan araututakoa. 6. artikuluan besterik gabe aitortzen du "pertsona fisiko eta pertsona juridikoek –publikoek zein pribatuek–, eratu ahalko dituztela fundazioak.

- Gero, honakoak onetsi ziren: Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legea eta Irabazi asmorik gabeko entitateen araubide fiskalari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legea. Xedapen horiek, zenbait errege dekreturen bitartez osatu zirenek, fundazioen erregelamendu-, erregistro- eta kontabilitate-arauak onetsi zituzten.

- Aurreko araudiaren osotasunean, Estatuko sektore publikoko fundazioak definitzen dira, eta esaten da haiek direla Estatuaren Administrazio Orokorraren, haren erakunde publikoen edo Estatuko sektore publikoko gainerako entitateen zuzeneko nahiz zeharkako gehiengodun ekarpenarekin eratutakoak; edo, bestela, sorrerako ondarea, ehuneko 50etik gorako proportzioan, modu iraunkorrean, aipatu entitateek emandako edo lagatako ondasunez edo eskubideez osatuta dutenak.

- Figura hori pixkanaka autonomietako legedira aldatzen joan zen, eta autonomietako sektore publikoko fundazioak arautu ziren estatuko sektore publikoko fundazioei aplikatu beharreko irizpide berekin.

- Fundazioak toki esparruan ezartzeari dagokionez, adierazi beharra dago toki araubidea ezar-

tzen duen estatuko araudiak ez duela jasotzen toki izaera publikoko zerbitzuak edo jarduerak fundazioen bidez emateko edo kudeatzeko aukera. Toki araubideari buruzko araudi autonomikoetan, berriz, figura horrek, orokorrean, garapen eskasa ageri du.

II.2. TOKI FUNDAZIOAK FORU ERKIDEGOKO LEGERIAN

a. Fundazioei buruzko foru arau orokorrak

Foruaren Hobekuntzako 44. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroak eskumen osoa du Nafarroako Foru Zuzenbideko arauari jarraikiz eratutako fundazioen arloan.

- Nafarroako Foru Zibilaren Konpilazioan edo Foru Berrian berriaz arautzen dira fundazioak. Bai sektore publikoko fundaziotzat jotzen direnak bai sektore pribatukoak, nagusiki, aplikatzekoa den zuzenbide pribatuaren menpean daude.

- Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea ezartzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeak, fundazioen tributu-araubidea ezartzean, zehazten du, halaber, zein izanen diren fundazioen araubide juridikoaren alderdi nagusiak: helburuak, eratze-baldintzak, estatutuen edukia, zuzkiduraren araubide juridikoa, jarduteko printzipioak, errenten zertarakoa, patronatu-kide karguen batezintasunak eta doakotasuna, Fundazioen Erregistroa, eta kontabilitatearen, aurrekontuen eta auditoretzaren arloko betebeharrak.

b. Foru sektore publikoko fundazio publikoak.

Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak, 125. eta 126. artikuluetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko fundazio publikoen (foru gobernuaren fundazio publikoak) kontzeptua, araubide orokorra, eratze eta sortze baldintzak eta araubide juridikoa ezartzen ditu. Gainerakoak, zuzenbide pribatuaren menpean daude, foru zuzenbidearen berezitasunekin eta kontratazioaren, aurrekontuen, kontabilitatearen eta kontrol finantzarioaren arloetan aplikatzekoak diren arauen aplikaziotik eratorritako berezitasunekin. Honela:

- Kontratazioaren arloan, Kontratu Publikoiei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea da aplikatzekoa.

- Aurrekontuen, kontabilitatearen eta kontrol finantzarioaren arloetan, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aplikatu behar da. Arau horrek foru fundazio publikoak foru sektore publikoan sartzeko, eta honako gaiak arautzen ditu, besteak beste: zorpetzea,

abalen ematea, aurrekontuen arloko berariazko xedapenak, barne kontrola, kanpoko auditoriak eta urteko kontuak. Besteak beste, ondokoak azpimarratu ditugu:

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko fundazio publikoek, urte bakoitzeko irailaren 15a baino lehen, honako dokumentazioa igorriko diote Ekonomia eta Ogasun Departamentuari:

a) Ustiapenaren aurrekontua, urteroko baliabide eta dotazioak zehaztuko dituen.

b) Kapitalaren aurrekontua, aurreko idatz-zatiko xehetasun bera izanen duena.

c) Ustiapenaren eta kapitalaren aurrekontuen edukia eta ekitaldian lortu nahi diren helburuak azaltzen dituen oroitidazkia.

– Fundazio publikoen kontuak Kontabilitate Plan Orokorren egokitzapenean irabazi asmorik gabeko entitateentzat aurreikusitakoak izanen dira, eta, gainera, honako gutxieneko edukia izanen dute:

a) Administrazio publikoetatik harturiko diru-laguntza eta bestelako transferentziak adierazten dituen egoera-orria. Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde autonomoek emanak adieraziko dira.

b) Plantillaren egoera eta bilakaera adierazten duen egoera-orria.

c) Kontabilitate erregulartasuneko auditoria.

c. Nafarroako toki sektore publikoko fundazioak

Ez dago berariazko foru araurik toki fundazio publikoei buruz. Hala eta guztiz ere, aplikatzekoa den araudiaren multzotik, honako hau ondorioztatzen da:

- Haren araubide juridikoa foru araubide pribatua izanen da, eta fundazioei buruzko foru arau orokorrak aplikatu beharko zaizkie.

- Kontratazio administratiboari dagokionez, Kontratuei buruzko Foru Legea aplikatuko da.

- Fundazioak ematen dituen diru-laguntzen arloan, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra da aplikatzekoa, lege hori baita toki entitateei aplikatu behar zaiena. Lege horren hamaseigarren xedapen gehigarriak zehazten du sektore publikoko fundazioek arlo horretan izanen duten araubide juridikoa.

- Aurrekontuen, kontabilitatearen eta barne-kontrolaren arloko araubideari dagokionez, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak ezer ere ez dio toki fundazio publikoei

buruz. Alabaina, haren 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Nafarroako toki entitateen ogasuna Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen bidez arautuko da. Horrenbestez, toki fundazio publikoek bete beharko dituzte azken arau horrek foru sektore publikoko fundazioetarako ezartzen dituen aurreikuspenak, betiere haiek toki esparruari behar bezala egokituta.

Lan honen ondorioetarako, toki fundazio publikotzat jotzen da honako inguruabarretakoren bat biltzen duena:

- Toki administrazioaren, haren erakunde publikoen edo toki sektore publikoko gainerako entitateen gehieneko ekarpenarekin –ekarpen hori zuzena nahiz zeharkakoa izan– eratuta izatea.

- Sorrerako ondarearen ehuneko 50 baino gehiago, modu iraunkorrean, entitate horiek emandako edo lagatako ondasunez edo eskubideez osatuta egotea.

- Patronatuko kideetatik gehienak toki entitateen ordezkariak izatea.

III. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Lan honekin, ondoko helburuak bete nahi izan ditugu:

1. Nafarroako toki fundazio publikoak arautzen dituen esparru juridikoa aztertzea.

2. Nafarroako toki fundazio publikoen xedea, jarduketa-esparrua eta haiek garatzen duten jarduketa ekonomiko finantzarioa zehaztea.

Lanaren norainokoari dagokionez, esan beharra dago lana bereziki honako alderdietan eragiten duen galdetegi baten bitartez egin dela:

- Fundazioaren identifikazioa.
- Jarduketaren xedea eta lurralde eremua.
- Patronatuaren osaera
- Jarduerak.
- Enplegatuak eta boluntarioak.
- Informazio ekonomikoa.
- Onuradunak.
- Egindako jarduera nagusiak.

Aipatutako galdetegiarekin batera igorritako gutunean, esaten da fundazioak toki fundazio publiko moduan eratzeko baldintzak betetzen ez baditu, idatziz jakinarazi beharko duela hori, galdetegia bete behar gabe.

Kontu Auzitegiaren arabera toki esparrukotzat jotzen ziren 12 fundazioei igorri zitzaizen hasiera

batean galdetegia, Nafarroako Gobernuko Fundazioen Erregistroaren idazki bati jarraituz; gero, kopuru hori zabaldu zen, eta hiru fundazio gehiagori igorri zitzairen, Comptos Ganberak zeukan informazioaren ondorioz.

Denbora-esparruari, kudeaketa alderdiei eta alderdi ekonomikoei dagokionez, funtsean 2009ko ekitaldian zentratuko gara.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Estatuako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioak eta arauak aplikatu dira, eta eskaeraren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak bildu dira. Galdetegiaren teknika erabili da lan honetarako tresna nagusi gisa.

Egindako lanaren izaerarengatik eta ondorioak modu orokorrean aurkezten direlako, txosten hau izapidetzerakoan ez dira aplikatu Comptos Ganbera honen araudian eztabaida teknikorako eta alegazioetarako aurreikusita dauden faseak.

Fundazio bat toki esparruko fundazio publikotzat katalogatzeko definizio argirik ez dagoenez eta fundazioen erroldarik edo inbentariarik ez dagoenez, ezin da bermatu txosten honetan bildu direnak Nafarroan dauden toki fundazio publiko guztiak izatea.

IV. ONDORIOAK

Planteatutako lanaren norainokoa kontuan izanda, honakoak izan dira atera ditugun ondorioak:

1. helburua. Nafarroako toki fundazio publikoak arautzen dituen esparru juridikoa aztertzea.

Lehena. Fundazio publikoak administrazio publikoek interes orokorreko era askotako helburuak lortzeko beren buruari ematen dieten tresnenteak dira.

Bigarrena. Fundazio publikoen araubide juridikoa Estatuaren eta autonomien esparruan araututa dagoen arren, kontratazioa eta urteko kontuen osiera, toki esparruan ikus daiteke toki fundazio publikoei buruzko berriazko araupetzerik ez dagoela.

Hirugarrena. Legezko definiziorik eta berriazko araupetzerik ez dagoenez, eta estatuko eta autonomia erkidegoko araudiari erreparatuta, jotzen da

lan honen ondorioetarako, toki fundazio publikoa dela honako baldintzetako bat betetzen dituen:

- Toki administrazioaren, haren erakunde publikoen edo toki sektore publikoko gainerako entitateen gehieneko ekarpenarekin –ekarpen hori zuzena nahiz zeharkakoa izan– eratuta izatea.

- Sorrerako ondarearen ehuneko 50 baino gehiago, modu iraunkorrean, entitate horiek emandako edo lagatuko ondasunez edo eskubideez osatuta egotea.

- Patronatuko kideetatik gehienak toki entitateen ordezkariak izatea.

Laugarrena. Nafarroako Foru Komunitatean ere, ez dago toki fundazio publiko horiei buruzko berriazko araupetzerik. Alabaina, zuzenean edo/eta ordezko gisa aplikatzekoa den araudiaren osotasunetik, esan daiteke haien araubide juridikoa, funtsean, foru zuzenbide pribatuan zehaztutakoa dela. Hala eta guztiz ere:

- Kontratazio administratiboaren eta diru-laguntzak ematearen arloetan, Kontratuei buruzko Foru Legea eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra aplikatuko dira.

- Haien aurrekontu-araubidea eta kontabilitatearen nahiz barneko kontrolaren arloko araubideak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen bidez ezarriko dira, toki esparruari behar den egokitzapena egin ondoren.

Gure gomendioak honakoak dira:

- *Foru erkidegoko botere publikoek toki fundazio publikoen araubide juridikoari, baldintzei, funtzionamenduari eta kontrol-tresnei buruzko araubidea osa dezatela.*

- *Nafarroako Gobernuak toki fundazio publikoen errolda edo inbentario bat egin dezala, eta haien informazio ekonomikoa eta aurrekontuetakoa Nafarroako Toki Sektore Publikoari buruzko urteko txostenean jaso dezala.*

2. helburua. Nafarroako toki fundazio publikoen xedea, jarduketa-esparrua eta haiek garatzen duten jarduketa ekonomikoko finantzarioa zehaztea.

Bosgarrena. Toki esparruko fundazioen sektore publikoaren osiera identifikatze aldera, galdetegi bat igorri zitzairen hasiera batean toki fundazio publikotzat jo zitezkeen 15 fundaziori, guztira. Fundazio horietatik, seik ziurtatu zuten ez zituztela betetzen toki fundazio publikotzat hartuak izateko baldintzak.

Honela:

Fundazioa	Udala	Toki Fundazio Publikoa	
		Bai	Ez
Dédalo para la sociedad de la información	Tutera	X	
María Forcada	Tutera	X	
Hospital Ntra. Sña. de la Gracia	Tutera		X
Casa de Misericordia	Tutera		X
Auditorioa	Barañain	X	
Hogar Santa Elena	Barasoain		X
Gayarre Antzokia	Iruña	X	
Casa de Misericordia	Iruña		X
Nuestra Señora de la Gracia	Viana	X	
Casa Misericordia San José	Bera		X
Milagro XXI	Milagro	X	
Yesa	Esa		X
Remonte Euskal Jai Berri	Uharte	X	
Centro de Arte Contemporáneo	Uharte	X	
Buldain	Uharte	X	
Fundazioak, guztira		9	6

Toki fundazio publiko ez direla justifikatzen duten fundazioek alegatzen dute 3. ondorioan azaldutako inguruabarretako bakarra ere ez dutela biltzen, salbu eta Yesa Fundazioaren kasuan, azken horrek berresten baitu fundazio publikoa dela baina autonomiako edo foru erkidegoko sektore publikoari atxikia dagoela.

Aurreko fundazioetatik ia guztiak 2000. urtea eta gero eratu dira.

Seigarrena. Garatzen duten jarduerari erreparatuta, honela bil ditzakegu Nafarroako toki fundazio publikoak:

Jarduera	Kopurua
Teknologia berriak sustatzea	1
Kulturaren sustapena	2
Kultur etxeen kudeaketa	3
Gizarte zerbitzuetako zentroyen kudeaketa	1
Enpresen eta kulturaren sustapena	1
Kirol arloa	1
Toki fundazio publikoak, guztira	9

Zazpigarrena. Fundazioetako patronatuen osaketari dagokionez, honakoa nabarmendu behar dugu:

Guztira, 85 patronatu-kide daude. Batez beste 9 kide dira fundazio bakoitzeko, honako taularen arabera:

